

2020ko UZTAILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **8 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko uztailaren 28an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illaramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Ez dira etorri	Iker Basurko De Miguel jn. Ainara Landa Argote and.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2020ko EKAINAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=1>

Udalbatzarrak onartu du, aho batez, 2020ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuraren akta.

Onartutako aktaren harira, bilkura hartan Amezti izeneko etxerako ur-hartunearen gaiarekin lotuta egin ziren adierazpenak hizpidera ekarri ditu **alkate** jaunak.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2020ko ekainaren 24tik uztailaren 22ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=3>

Segidan, Alkatezak 2020ko ekainaren 24tik uztailaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2020ko ekainaren 29tik uztailaren 20ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 29tik uztailaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2020ko 2. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=5>

Udalbatzak jakin berri du 2020ko bigarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2020ko 2. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=6>

Halaber, Udaltzari jakitera eman zaio 2020ko bigarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- ALKATETZAREN 0563 DEKRETUA BERRESTEA

– Kreditu aldaketarako espedientea, 2020-KALD-000009-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=7>

Segidan, jarduneko idazkariak dekretu hau irakurri du:

– Alkatetzaren 0563 Dekretua, 2020ko ekainaren 12koa:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000009-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, **ERABAKITZEN DUT:**

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	Pertsonal gastuak	212.500,67
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		212.500,67

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	212.500,67
GUZTIRA		212.500,67

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 2. artikulua arabera, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondorioz izango.”

Proposamena bozketan jarrita, hauxe izan da emaitza:

Botoak alde:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	–	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, aipatutako gehiengoarekin, transkribatutako Dekretua berrestea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

7.- ALKATETZAREN 0623 DEKRETUA BERRESTEA

– Kreditu aldaketarako espedientea, 2020-KALD-000010-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=8>

Hurrena, jarduneko idazkariak dekretu hau irakurri du:

– Alkatetzaren 0623 Dekretua, 2020ko ekainaren 25ekoa:

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000010-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, **ERABAKITZEN DUT:**

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
4	Transferentzia arruntak	90.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		90.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	90.000,00
GUZTIRA		90.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboan denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 2. Artikuluaren arabera, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.”

Proposamena bozketan jarrita, hona hemen emaitza:

Botoak alde:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Beraz, aipatutako gehiengoarekin, transkribatutako Dekretua berrestea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

8.- ALKATETZAREN 0678 DEKRETUA BERRESTEA

— Kreditu aldaketarako espedientea, 2020-KALD-000011-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=9>

Era berean, jarduneko idazkariak dekretu hau irakurri du:

— Alkatetzaren 0678 Dekretua, 2020ko uztailaren 8koa:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000011-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, **ERABAKITZEN DUT:**

Lehen.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	27.100,00
4	Transferentzia arruntak	5.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		32.600,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	32.600,00
GUZTIRA		32.600,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Hirugarrena.- 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 2.artikuluaren arabera, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.

Proposamena bozketan jarrita, emaitza hau izan du:

Botoak alde:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Ondorioz, aipatutako gehiengoarekin, transkribatutako Dekretua berrestea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

9.- 2019. URTEKO KONTU OROKORRA.

Espedientea: 2020D2000002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=10>

2020ko maiatzaren 28an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko txostena eman zion 2019. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Kontu orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2020ko ekainaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (104 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU:

Zarauzko Udalaren 2019. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea.

10.- 2020. URTEKO AURREKONTUA EGOKITZEKO PROPOSAMENA: KREDITU BATZUK EZ-ERABILGARRI IZENDATZEA

Espedientea: 2020D2000001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=11>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du jarduneko idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	7	(7 EH Bildu)
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“COVID-19 gaitzak eraginda, 2020. urtean Zarauzko Udalak jasoko dituen diru-sarrerek ez dute zerikusirik izango aurrekontuan jasotako aurreikuspenekin; ondorioz, beharrezkoa izango da gastuetan ere egokitzapen bat egitea.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

2020ko Aurrekontua egokitzeko proposamena onartzea, eta eranskinean azaltzen diren kredituak ez-erabilgarri gisa izendatzea; guztira 2.743.178,63 euro, laburpen honen arabera:

Gastu arrunta:	1.540.678,63 €
Inbertsioak:	1.202.500,00 €

11.- PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN 8. ORDENANTZAREN ERANSKINA ALDATZEA.

Espedientea: 2020C2100002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=12>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Ikusita prezio publikoak arautzen dituen 8. Ordenantzaren eranskina aldatzeko proposamena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.- Onespena ematea zerbitzuak eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen 8. Ordenantzaren eranskinaren aldaketari.

Bigarrena.- Ezarritako prezio publikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eragina izan dezaten.”

PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN 8. ORDENANTZAREN ERANSKINAREN ALDAKETA

a) UDAL EUSKALTEGIA

Tarifak	euro
Aurrez aurreko ikastaroa/orduko	1,04
Autoikaskuntza zerbitzua/orduko	2,64
C2 1 ikastaroa on-line/ orduko	3,43
C2 2 ikastaroa on-line/ orduko	1,85

Udako autoikaskuntza zerbitzua/ orduko	2,10
Erretiratuentzako ikastaroak	Doan

Ordaintzeko arauak:

Matrikula-orria betetzearekin batera, ikasleak helbideratze-orria beteko du. Matrikula epe bakarrean edo hiru epetan ordaindu ahal izango du: epe bakarrean, urriko lehen hamabostaldian; hiru epetan, urriko, urtarrileko eta martxoko lehen hamabostaldian, bakoitzean herena.

Ikaslea aurrez aurreko taldean hasi eta autoikaskuntzara pasatzen bada, honela kobratuko zaio: aurrez aurreko matrikularen herena gehi autoikaskuntzako matrikulari dagokiona urtarriletik ekainera.

Bajak emateko prozedura

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat baldin badago, honela ordainduko dira kuotak:

- Itxaron-zerrendan ikasleak baldin badaude, baja eman duena ordezkatu egingo da, eta ez du kuota gehiago ordainduko.
- Itxaron-zerrendan ikaslerik ez badago, baja eman duen ikasleak ikasturte osoa ordaindu beharko du.

Matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko.

Matrikula-dirua itzultzeko salbuespena:

Ikasleak ikastaroa 1. hilabeteaz aurrerantzat badu, ordaindutakoa itzuliko zaio, eskaera idatziz egin eta baja justifikatzen badu, agiria ekarrita.

e) ZARAUZKO TURISMO BULEGOA:

Tarifak (BEZ sartuta)	euro
Boligrafoa	1,00
Boligrafo argiduna	3,50
Metalezko giltzatak	3,50
Gomazko giltzatak	3,00
Poltsikoak hustekoa	8,50
Helduen kamiseta	12,50
Umeen kamiseta	8,50
Bisera	7,00
Intsignia-pina	2,00
Libreta	2,50
Arkatza (Swarovski)	1,50
Pen Drive-a (16GB)	12,50
Motxila	3,90
Balea	15,00
Posterra	3,00
Sisters poltsa	10,00
Sisters motxila	12,00
Sisters katilua	10,00
Sisters koaderno	8,00
Sisters liburua	14,95
Sisters giltzatak	8,00
Sister Kandela	17,00
Sisters orri markatzailea	9,00
Mugikorraren kargagailua	15,00
“Toldotxo” platera	5,00
Likidoentzako bidoia	3,90
Margoak	1,50
Erraldoiak	13,00

f) KULTURA ETA ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

Kultura Departamentuko ikastaroak (plaza dantza...)

Prezioa	euro
Matrikularen prezioa pertsonako (gehienez 10 orduko ikastaroak)	16,05

Matrikularen prezioa pertsonako (11-20 ordu bitarteko ikastaroak)	32,10
Matrikularen prezioa pertsonako (21-30 ordu bitarteko ikastaroak)	62,15
Matrikularen prezioa pertsonako (30 ordutik gorako ikastaroak)	85,00

r) UDAL MUSIKA ESKOLA

2019-2020 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (€)	Ikastaroaren prezioa (€)
Musika hizkuntza (haurrak)	40,00	200,00
Musika hizkuntza (helduak)	40,00	310,00
Instrumentua	40,00	400,00
Musika tailerra	40,00	310,00
Instrumentu multzoak	40,00	220,00
Musikoterapia	40,00	350,00

2020-2021 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (€)	Ikastaroaren prezioa (€)
Musika hizkuntza (haurrak)	40,00	200,00
Musika hizkuntza (helduak)	40,00	310,00
Instrumentua	40,00	400,00
Musika tailerra	40,00	310,00
Instrumentu multzoak	40,00	220,00
Musikoterapia	40,00	350,00

Prezio publikoen ezarpenaren arauak

- Matrikula formalizatzeko nahitaezkoa da ordainketa eginda edukitzea.
- Matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko.
- Zozketa egin ondoren, itxaron-zerrenda bat osatuko da, ikasturtean zehar hutsik geratzen diren plazak betetzeko.
- Matrikula ezin da telefonoz egin.
- Matrikula familia unitateko kobratuko da. Familiako kide bat baino gehiago dituzten familiek matrikula bakarra ordainduko dute.
- Familia unitate bereko hirugarren matrikulatuari %50eko deskontua aplikatuko zaio ikasgaietan.
- Familia unitate bereko laugarrenari, %75ko deskontua aplikatuko zaio ikasgaietan, gehi hirugarrenari aplikatuko zaion %50a.

BAJAK: baja emateko prozedura

Musika tailerra eta Musika hizkuntza:

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat badago, idazkaritzan jakinarazi beharko da. Ondorengo epeen arabera ordainduko dira kuotak:

- Baja, irailetik abendura arte (biak barne): abendura arte kobratuko da (abendua barne).
- Baja, urtarriletik martxora arte (biak barne): martxora arte kobratuko da (martxoa barne).
- Baja, apiriletik ekainera arte (biak barne): ekainera arte kobratuko da (ekaina barne).

Instrumentua

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat badago, idazkaritzan jakinarazi beharko da.

Kuoten ordainketa:

- Baja emandako instrumentuaren itxaron-zerrendan ikasleak badaude, baja hartu duen ikaslea ordezkatu egingo da, eta ez du kuota gehiago ordainduko.
- Baja emandako instrumentuaren itxaron-zerrendan ikaslerik ez badago, baja hartu duen ikasleak ikasturte osoa ordaindu beharko du.

Matrikula egitearekin batera, ikasleak onartu egingo ditu Musika Eskolako arauak.

12.- ZARAUZKO 21. –OD ABENDAÑO– AREAKO EKIPAMENDUAK ETA GUNE LIBREAK BERRANTOLATZEKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2019H7000010

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=13>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	18	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	–	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2020ko martxoaren 2an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea Zarauzko 21. –OD Abendaño– areako ekipamenduak eta gune libreak berrantolatzeko plan bereziaren testu bateginari. Zarauzko Udalak berak abiarazi zuen espedientea.

Ondorengo administrazioen aldeko txostenak jaso ziren:

- Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzarena, 2020ko martxoaren 29an.
- Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuarena, 2020ko maiatzaren 8an.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazio bat aurkeztu zen. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak horri buruzko txostena egin zuen, eta alegazioa zati batean onartzea proposatu. Ondorioz, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak berak testu bategin aldatua idatzi zuen; hor sartu dira alegazioa zati batean onartzeak eragindako aldaketak.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 18 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Urola Kostako Udal Elkarteak aurkeztu zuen alegazioa zati batean onartzea. Horren ondorioz, aldatu egingo da hasierako onspena jaso zuen plan berezia. Hauek dira aldaketak:

- Plan bereziaren eremua: Bide-sareari 83 m²-ko azalera gehitzen zaio.

- Garbigunearen partzelan, sestra gaineko gehienezko eraikigarritasun fisikoa: eraikitako 3365 m².
- Udal Elkarteari dagozkion jarduerak gauzatzeko epeak: 4 urte.
- Jardueretarako aurreikusitako aurrekontuak egokitu egingo dira.
- Antzemandako akatsak zuzendu egingo dira.

Bigarrena.- Behin betiko onespina ematea Zarauzko 21. –OD Abendaño– areako ekipamenduak eta gune libreak berrantolatzeko plan bereziaren testu bateginari (2020ko uztaileko dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariek idatzitakoa).

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneren akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

13.- 10.2 –OR SALBERDIN– AREAKO R3 BIZITEGI-PARTZELA ERAIKITZEKO ALDEZ AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZEI BURUZKO HIRIGINTZA-ORDENANTZEN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2020H7000004

<http://bideoakta.zarauz.eus/?pleno=20200728&punto=14>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, eguneko aztergai hau hizpide hartuta udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta, ondoren, eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	8	(7 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2020ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespina eman zion 10.2 –OR Salberdin– areako R3 bizitegi-partzela eraikitze aldez aurretik bete beharreko baldintzei buruzko hirigintza-ordenantzen aldaketari.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazio bat aurkeztu zen, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak horri buruzko txostena egin zuen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 11 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Erantzuna ematea Javier Corta arkitektoak aurkeztutako iradokizun-idatziari (R3 partzelaren sotoko lerrokadurak aldatzea), honakoaren arabera:

Eskertzen dira iradokizunak, interesgarriak eta baliagarriak direlako. Dena den, pentsatzen de hobe dela horiek espediente honetatik kanpo aztertzea eta, hala badagokio, lerrokadura berriak ezartzeko xehetasun-azterketa bat idaztea eta izapidetzea.

Bigarrena.- Behin betiko onespina ematea 10.2 –OR Salberdin– areako R3 bizitegi-partzela eraikitze aldez aurretik bete beharreko baldintzei buruzko hirigintza-ordenantzen aldaketari. Aldatu diren ordenantzak jasota daude bai ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORrean eta bai 10.2 –OR SALBERDIN– AREAREN ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIAN.

Zarauzko Udalak abiarazi du espedientea. Hasierako onespina jaso zuen dokumentu bera onartu da (2020ko apirilaren 30eko dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariek idatzitakoa).

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onspenaren akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

14.- BIGARREN LANPOSTURAKO BATERAGARRITASUN ESKAERA.

Espedientea: 2020P3280002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=15>

Udaldian izaten den zeregin kopuru handia dela-eta, Alkatezaren 2020ko ekainaren 12ko 0571 Dekretu bidez, Izaskun Uzkudun Aldalur andrea bitarteko funtzionario izendatu da, Kultur eraikinetako zaintzaile lanpostuaren funtzioak betetzeko (C2 taldea), ekainaren 18tik irailaren 12ra, % 58ko lanaldian, ondorengo ordutegiarekin: astelehenetik ostiralera 16:30-20:00h, eta larunbatetan 10:00-13:00h.

Ekainaren 9an, lanpostu horren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakasle elkartu lanpostuaren arteko bateragarritasun-eskaera aurkeztu zuen. Adierazitako unibertsitatearekin indarrean duen lan-kontratuaren azken luzapena

2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartekoa da, % 32ko lanaldiarekin (12 ordu astean, urteko zenbaketan).

Giza baliabideetako arduradunaren txostenaren arabera, bi lanpostuen arteko bateragarritasuna onargarria da, betetzen baititu abenduaren 25eko 53/1984 Legeak xedatutako betekizun guztiak (Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoa).

Hori guztia ikusi eta kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU:

Izaskun Uzkudun Aldalur andreak egindako eskaera onartzea (34108862T), eta, hortaz, bateragarritasuna baimentzea Kultur eraikinetako atezainaren lanpostua (% 58ko lanaldian) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko lanaldi partzialeko eta iraupen jakineko irakasle elkartuen lanpostua betetzeko.

15.- BIGARREN LANPOSTURAKO BATERAGARRITASUN ESKAERA.

Espedientea: 2020P3280003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=16>

2020ko uztailaren 9an Ander Lucas Aranceta jaunak Deustuko Unibertsitatean irakasle elkartu moduan lanak egiteko bateragarritasun eskaera aurkeztu du. Lucas jauna bitarteko funtzionario izendatu da hutsik dagoen Koordinaziorako gizarte langile lanpostuko (1.1.185 kodea) funtzioak betetzeko. Lanpostuaren fitxan aurreikusia dago beharrezkoa denean departamentuko arduraduna ordezkatzuko duela.

Deustuko Unibertsitatean irakasle elkartu lanak egiteko proposamena jaso du, 2020ko irailtik abendura, lanaldi partzialarekin.

Giza baliabideetako arduradunaren txostenaren arabera, bi lanpostuen arteko bateragarritasuna onargarria da, bete egiten baititu abenduaren 25eko 53/1984 Legeak xedatutako betekizun guztiak (Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoa).

Hori guztia ikusi eta kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU:

Ander Lucas Aranceta jaunak egindako eskaera onartzea, eta, hortaz, bateragarritasuna baimentzea Koordinaziorako gizarte langile lanpostua eta, dagokionean, Gizarte Zerbitzuetako arduradun lanpostua eta Deustuko Unibertsitateko lanaldi partzialeko eta iraupen jakineko irakasle elkartu lanpostua betetzeko.

16.- GURASOTASUN BAIMENAK PAREKATZEA.

Espedientea: 2019P3990034

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=17>

Zarauzko Udaleko ELAko atal sindikalak 2019ko azaroaren 25ean eskaera egin zuen (2019-13397 sarrera zk.) guraso-baimenak 20 astetan pareka zitezen.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartu zen (aurrerantzean EPOETB). Dekretu horren 49.c) artikulua 16 asteko baimena xedatzen du jaiotzagatik ama biologikoarentzat. EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEEN 2008-2010EKO LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN UDALHITZ HITZARMENAK, ordea, 126 egun naturaleko amatasun-baimena aitortzen du (18 aste).

Ama biologikoa ez den gurasoen baimenari dagokionez, martxoaren 1eko 6/2019 Errege-Dekretu Legeak aldatu egin zuen EPOETBaren 49.c) artikulua, eta bi gurasoen baimenak 16 astetan parekatu zituen. Hala ere, EPOETBaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten da aldaketa hori ez dela bat-batekoa izango: 2019. urtean 8 asteko baimena, 2020. urtean 12 astekoa, eta 2021. urtetik aurrera 16 asteko baimena izango dute ama biologiko ez diren gurasoek.

EUDELek Euskadiko udalei gomendatu die, negoziazio kolektiboaren esparruan, dagozkion akordioak har ditzatela bi gurasoentzat seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik dauden baimenen iraupena 18 astetan parekatzeko (126 egun natural), EPOETBaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak kontuan hartu gabe.

Hemen adierazitakoa langileen ordezkariekin negoziatu zen 2020ko uztailaren 7ko Negoziazio Mahaian.

Hori guztia ikusi eta kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.- Ama biologikoa ez den beste gurasoaren baimenaren iraupena 126 egun naturalekoa izango da, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik; horietatik, gertaera eragilearen ondoko sei asteak nahitaezko atsedenaldira izango dira. Baimen hori bi aste luzatuko da, aste bat guraso bakoitzarentzat, semea edo alaba ezindua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza bada; eta jaiotza-datatik, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik, edo adopzioa eratzten duen ebazpen judizialek aurrera hartu beharko da.

Bigarrena.- Aurreko puntuan aurreikusitakoa urratzen ez duen guztian, seme edo alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik

ama biologikoa ez den gurasoaren baimena hartzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginak 49. c) artikuluan jasotako estipulazioak bete beharko dira, eta, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko baimen hori arian-arian aplikatzeko aipatutako lege-arauaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak.

Hirugarrena.- Gurasotasun-baimen kasu guztietan Udalaren kontura diren lizentzia asteetan, eta proportzionaltasun-printzipioa gordetzearren, irizpide batzuk jarriko dira lizentzia etenda hartzen den kasuetarako, udal langile guztiek lizentziako denbora efektibo berdina izan dezaten.

Laugarrena.- Gurasotasun-baimen kasu guztietan, epealdi osoa azalduko duen egutegi edo proposamen bat aurkeztu beharko da zerbitzua emango dela bermatzearren.

Bosgarrena.- Akordio honek xurgatu egiten DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAK (UDALHITZ 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste edozein akordio, itun edo xedapenetan ezarritakoa ere, baldin eta baimen gehigarriak ezartzen badira ama biologikoa ez den gurasoarentzat, seme edo alabaren jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioagatik.

Seigarrena.- Aplikazio-eremua: Akordio hau Zarauzko Udaleko langileei aplikatuko zaie.

Zazpigarrena.- Aplikazioa: Gertaera eragilea 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen den kasuetan aplikatuko da akordio hau.

Podemos-Equo Berdeak udal taldeko bozeramaileak eskatuta, iluntzeko bederatzia direnean, batzarburu jaunak bilkura eten egin du, atsedeen txiki bat egiteko. Handik hamar minutura, bederatzia eta hamarren berri bilkurari ekin diote.

17.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia.

Espedientea: 2020O0010003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200728&punto=18>

Segidan, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Goenaga** jaunak. Hona hemen testua:

Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia

2014ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea Udalak berak abiarazi zuen Zarauzko bizikleta bide eta azpiegituren plan bereziari. GEA21 aholkularitzak idatzi zuen dokumentua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak plan bereziari buruzko aldeko txostena egin zuen.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazio-idatzi bakarra aurkeztu zen; GEA21 aholkularitzak informatu egin zuen eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak eztabaidatu zuen. Halaber, informazio-batzorde horrek eztabaidatu zituen udaleko hainbat departamentuek (Herrilan, Udaltzaingoa, Hirigintza) planteatu zituzten proposamenak.

Azkenik, GEA21 plan bereziaren testu bateginean jaso ziren informazio batzordeak ontzat hartutako aldaketak eta udal teknikoek eskatutako zuzenketak.

2015eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen behin betikoz onestea Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia

Bizikleta hiriko bidean txertatzeko prozesua azken hamarkadan zehar garatu izan da, hirigintza eta mugikortasunaren plangintzarako hainbat dokumenturen bidez. Prozesuaren azken katebegia Zarauzko Bizikleta Bide eta Azpiegituren Plan Bereziaren onarpena izan zen, izenak berak dioen moduan hirigintzako araudiaren parte dena bera eta, horrenbestez, derrigor betetzekoa.

Tamalez, Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia kontuan hartu gabe hainbat bizikleta-bide mantenurik gabe daude, eta larriago dena, Bizikleta ibilbideek aldaketa, mutilazio eta bideen etenak sufritu dituzte, Plan Bereziari inolako aldaketa proposamenik egin gabe.

Bideren bat kentzeko edo/eta beste bide batzuekin edo destinoekin lotzeko bizikleta-bideetan aldaketak egiteko, horien proposamenak eta balorazio ekonomikoa jasoko dituen Plan Berezia aldatzeko prozesu bat zertu behar da. Udal Gobernu honek, ordea, berriz ere muzin egiten dio arauak agintzen duten prozedurei, Udal Batzar honek onartutako plangintza, derrigor bete beharrekoa dena, baztertuz.

Horrelako egoera larri baten aurrean EH Bilduk honako eskaerak egiten dizkio Udalbatzari onartuak izan daitezen:

MOZIOA:

1. Udal Batzar honek onartutako Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezia errespetatu eta bete dezala.
2. Eraikiak ziren Bizikleta Bide Sareko ibilbideak bere osotasunean berreskura ditzala urte amaiera aurretik.

3. Salberdinen egingo den tren azpibideko proiektuan txerta dezala bizikleta ibilbideko 5. ardatza egoki gauzatzeko irtenbidea.
4. Osatu dadila Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan berezian Salberdin eta Gaztainpe arteko lotura berria.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamena bozketan jarri dute, eta emaitza hau izan du:

Botoak alde:	8	(7 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Botoak aurka	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	-	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa ATZERA BOTATZEA.

18.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarauz.eus/?pleno=20200728&punto=19>

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide

- **Elola** jaunak, Murua andreari zuzenduta, esan dio araudia betetzeko dagoela eta ezin dela aldi berean eskatu arau-haustea eta araua betetzea.
- **Murua** andreak adierazi du ez duela inolaz ere araudia aldatzeko eskatu, baizik eta esplikatu egin duela alkate jaunak aurpegiaritutako jokaera.
- **Etxaburu** jaunak EAJ taldeko zinegotziei eskatu die Txurruka jaunak hauteskundeetako kanpainan adierazitako jarrera eta hitzetatik bereizteko.
- Azkenik, **Txurruka** jaunak Murua andreari honakoa eskatu dio: hurrengo bilkuran azal dezala alkateari jarritako salaketa, ekainaren 30eko osoko bilkuran aipatu zuena, Amezti eraikinari ur hartunea emateari buruzko aztergaiari, ordura arte berak ez baitzuen ezagutzen.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrak eta laurdenetan; eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.